

«Beldurra lekuz aldatuko dugu!»

Sagardotegi garaian jazotzen diren (eta eragiten dituzten) eraso sexista, baboseo eta oro har jarrera matxistak salatu eta kaleak emakumeek berreskuratzeko manifestazioa egin dute martxoaren 14an Hernaniko kaleetan.

| KATTALIN MINER |

ORDUA ez zen ohikoa, egoera ohikoa ez den bezalaxe. Ilunak kale basatiak hartu zituenean hasi zuen manifestazioak martxa. Ehunka emakume azaldu ziren, antolatzaileek eskatu gisan, beltzez eta aurpegiak estalita. Sentsazio urduria nabari zen parte-hartzaileen artean, izan ere ondo zekiten zer espero zuten taberna arteko kale giroan, emakume hernaniar eta ez hernaniarrak ohituta baitaude urtean zehar jada hain emakumezkoenak ez diren kaleak sagardotegi garaian nola desjabetzen dizkieten ikustera.

“Ez gara probokazioetan eroriko. Helburua manifestazioa bukatzea da, eta arazorik izanez gero, abisatu alboetan izango dituzuen segurtasun arduradunei”. Bazirudien, une batez, gerra hastera zihoala, baina hainbat urtetan garai hauetan aldarri feministak txertatzen ibili denak ederki daki zer datorkion gainera.

Batukadak gidatuta martxak Andre Kaletik hasi zuen bidea, egun osoan zehar tragoa esku artean lasai ibili zutenen harridurarako. Askok ongi ulertzen ez bazuten ere, nabari zuten ez zela hain kontu ludikoa danborren atzetik zetozen horiena, eta oihiak hasi ahala argitu zitzairen manifestazioaren zioa. “Ez, ez, ez, erasorik ez!”, “kaleak, gauak, geureak dira”, “matxirulo, entzun, pin, pan, pun!” eta halakoekin hartu ziren lehen kaleak.

Borroka feministaren aldeko oihiak ere ez ziren falta izan, baina edonola ere, oihiak ez ziren behingoagatik oihiu etsituak ezta leloa jarraitu beharragatik errepikatutakoak. Nabari zen ozen eta garrasika aritzeko beharra, eta hala, minutu gutxitan, sagardotegi garaian kaleek izan ohi duten itxura erabat aldatu zen.

Izan ere, eraso sexistez gain, bada espazioaren erabileran desoreka handi bat, jai-giro, taberna edota kaleak bi taldetan banatzen baitira halakoetan: “Ezin kabitu” dabiltzanak



Larunbatean, lekurik ez izateaz nazkatutakoek ere erdigunea lortu zuten

eta zuzenean, lekurik ere ez dutenak. Joan den larunbatean, lekurik ez izateaz nazkatutakoek ere erdigunea lortu zuten, une batez bada ere, eta kabitu ezinek pauso bat atzera egin behar izan zuten tarte batez.

Oro har manifestazioak lasai egin zuen bidea, eta antolatzaile eta parte-hartzaileen artean sentsazio gozoa nabari zen jasanezina den giro ezagun hori minutu batzuek desitxuratu izanagatik behintzat. Kaleak berreskuratzeko ematen duen ahalduzko sentsazio horrekin ekin zieten amaierako hitzei, eta argi egin zuten autodefentsa feminista erabiltzearen aldeko deia, eta beldurtuta bizitzeaz eta ibiltzeaz nazkatuta zeuden emakumeen oihiak argitu zuen etorkizuna: “Beldurra lekuz aldatuko dugu!”. ■